IRAKURMEN-IDAZMEN ZAILTASUNAK DETEKTATZEKO TESTA (4 urte)

Izen-abizenak: _____

Jaiotza-data: _____ Probaren data: _____

1. Fonemen arteko diskriminazioa (hitz bikoteak):

"Jolastuko gara. Bi hitz esango dizkizut, eta esango didazu hitzak berdinak edo desberdinak diren, hau da, ea hitz bera errepikatzen den ala ez. Adi egon: PIL-PIL (hitzak berdinak dira), GAR-LAR (hitzak oso antzekoak dira, baina ez dira berdinak, desberdinak dira). Orain zure txanda da: zotz-zotz, katu-batu…. Ederto! Aurrera!"

Zin-zil ☐ lor-lor ☐ jan-lan ☐ gar-gor ☐ fin-fin ☐ Puntuak: ☐

2. Silaben banaketa:

"Orain txaloak eman behar dituzu. Aditu neuri: LORE: /LO/-/RE/; orain hitz luzeago bat: PILOTA: /PI/-/LO/-/TA/ Orain zure txanda da, gona: … banana:....Oso ondo!!!"

gasa ☐ luma ☐ gezurra ☐ txakurra ☐ tximeleta ☐ Puntuak: ☐

3. Fonemak identifikatzea:

"Soinu bat esango dizut /r/, eta nirekin batera esango duzu. Orain esango didazu ea soinu hori hitz hauetan entzuten duzun: Badago /r/ MARRA hitzean? (BAI); /r/ entzuten duzu ILEA hitzean? (EZ). Beste zenbait hitzekin jarraituko dugu...."

Larra ☐ besoa ☐ sudurra ☐ gorria ☐ negua ☐ Puntuak: ☐

4. Hitz asmatuak errepikatzea:

"Jolas honetan errepikatu behar da. Nik asmatutako hitz berri batzuk errepikatu behar dituzu, Ados? Errepikatu nik esaten dudana: JEPO, ZOKATA, Jokalari paregabea zara. Jarraitzeko prest?"

Nigo ☐ muspe ☐ diplo ☐ tingano ☐ pelagro ☐ Puntuak: ☐

5. Zifrak errepikatzea:

"Zenbaki batzuk esango dizkizut, eta zuk errepikatuko dituzu. Adi-adi egon ondo egiteko".

8	☐	5	☐
1- 6	☐	7-2	☐
5-2-1	☐	6-4-8	☐
5-3-1-8	☐	3-7-4-1	☐
4-1-8-3-9	☐	6-3-2-5-8	☐

Puntuak: ☐

6. Hitz egiteko erraztasuna. *Animalien izenak:*

"Zein da zure animaliarik gustukoena? Ederto! Orain esango dizkidazu burutik pasatzen zaizkizun animalia guztien izenak"

Animalia-kopurua: ☐ Puntuak: ☐

Puntuak guztira (30etik zenbat): ☐

Irakurmenean zailtasunak detektatzeko testerako eta puntuak kalkulatzeko jarraibideak.

Proba honek irakurmenaz jabetzeko prozesuari lotutako zenbait trebetasun ebaluatzen ditu: kontzientzia silabikoa, fonemen bereizketa, oroimen fonologikoa, hitz egiteko erraztasuna. Proban **6 zeregin** daude, eta hauetako bakoitzak, gehienez ere, **5 puntu** izango ditu, ondorioz, proban, guztira, **30 puntu** lor daitezke. Banatzeko denbora 5 minutu ingurukoa izango da.Zeregin bakoitzak jarraibide orientagarriak baditu ere, batzuetan azalpen osagarriak eman beharko dira umeak eskatzen ari garena hobeto uler dezan.

1. **Fonemen arteko diskriminazioa**:
   Umeak esan behar du bi hitz berdinak ala desberdinak diren. Horretarako, batetik, bi hitz berdinen adibidea jartzen zaio (mara-mara) eta bi hitz desberdinena (xake-mate). Umeei ez zaie zaila egiten zeregina. Puntuak: Umeak zuzen egin duen bikote bakoitzeko puntu bat

2. **Silaben banaketa:**
   zeregin honetan umearen kontzientzia silabikoa neurtzen da, eta horretarako, umeak silabaka banatu behar du hitza. Banaketa bakoitzarekin batera umeak txalo bat edo mahaian kolpe bat eman behar du. Adibide batzuk azalduko zaizkio, azalpenetan daudenak, umearen izena, haren amaren izena...eta testaren itemekin jarraituko da. Puntuak: Umeak zuzen banatu duen hitz bakoitzeko puntu bat

3. **Fonemak identifikatzea:**
   umeak hitz baten fonemak bereizteko duen trebetasuna baloratzen da. Umeari hitz baten barruan soinu zehatz bat (/r/ fonema) entzuten duen galdetuko diogu. Fonema bakarrik ahoskatuko diogu, eta, ondoren, berak ahoskatzeko eskatuko diogu (zenbaitetan umeak ez du fonema guztiz ondo ahoskatuko). Geroago fonema hori barruan duten hitzen adibideak jarriko dizkiogu: arrrrrra, Errrrrrrramun, irrrrria…Horiek entzundakoan, zeregina egiten hasiko da. Puntuak: hitz bakoitzeko puntu bat.

4. **Hitz asmatuak errepikatzea**.
   Zeregin hau oso erraza da. Umeak guk esaten duguna baino ez du errepikatu beharko. Puntuak: zuzen esandako hitz asmatu bakoitzeko puntu bat.

5. **Zifrak errepikatzea**:
   Umearen oroimen fonologikoa aztertuko da. Umeak zenbaki-serieak errepikatu beharko ditu; zenbaki bakar batekin hasiko da, eta zuzen esaten badu, bi zenbaki esan beharko ditu, gerora hiru, … Huts egiten badu, bigarren zutabekoak errepikatzeko aukera emango zaio. Bi ahaleginetan huts egiten badu, proba eten egingo da, eta zuzen errepikatu dituen zenbakiak jasoko dira. Zenbakien erritmoa: segundo bakoitzeko zenbaki bat esango zaio. Puntuak: zuzen errepikatutako zenbaki kopuru handienarekin bat etorriko da.

6. **Hitz egiteko erraztasuna**:
   Umeak minutu batean burura datozkion animaliak aipatu beharko ditu. Esan dituen animalien kopurua jasoko da. Puntuak: animalien kopuruaren arabera jasoko da. ***0-1****: 0 puntu;* ***2-3****: puntu 1;* ***4-5****: 2 puntu;* ***6-7****: 3 puntu;* ***8-9****: 4 puntu;* ***10 edo gehiago****: 5 puntu.*

Puntuak guztira: sei zereginetan lortutako puntu partzialak batu behar dira.

- *27 eta 30 puntu bitartean:* Errendimendu ona
- 18 eta 27 puntu bitartean: Errendimendu normala
- 16 eta 18 puntu bitartean: Zailtasun arinak
- 16 puntutik behera: Zailtasun larriak